

Urdaibain Guggenheim museorik ez dela behar adierazi eta Bizkaiko Aldundiaren jarrera «anti demokratikoa» gaitzetsi dute Joseba Arregik, Xabier Lakak eta Maria Murrek Kultura Irekia foroak deitutako mahai-inguruan.

Ziklogenesi kritikoa helburu

Irene Berro Bilbo

Ez. Ez dugu ez halako museorik behar ez halako kultur politikarik nahi». Halaxe mintzatu ziren atzo Bizkaiko Foru Aldundiak Urdaibaiko erreserban egin nahi duen Guggenheim museoz Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izandakoa, Xabier Laka artista eta Maria Mur arte ekoizle independentea. «Ez, arrazoi askorengatik».

Kultura Irekia eztabaida foroak antolatutako *Urdaibai, museoak eta kultur politikak* izenburuko ekitaldian azaldu zituzten arrazoi horietako batzuk atzo arratsean Arregik, Lakak eta Murrek. Urdaibaiko biosfera erreserban Guggenheim markako museo bat egiteko eztabaida «instituzioetatik gizartera» ekartzeko asmoz egin zuten mahai-ingurua. Kultura Irekia forokoek «eztabaida demokratikoa» aldarrikatzen dute, eta, diotenez, horretarako «ezinbesteko» da kultur politiken inguruan «hausnarketa sakona» egitea. Gogoeta prozesu horren barruan, lehen urratsa egin zuten atzo Arregik, Lakak eta Murrek. Aldundiak «eztabaida bahitu» egin duela uste dute Kultura Irekikoek. Eta «pentsabidea uniformetzearen aurka» «ziklogenesi kritikoa» sortu behar dela sinetsita daude. Hala, eztabaida gehiago egingo dituztela iragarri zuen Fernando Golvano moderatzaileak, hizlarietako emana aurretik.

Legarrik gabe eman zuten iritzia Arregik, ohi duen tinkotasunez. «Ez. Ezin diezaioke bestelako erantzunik eman ezagutzen ez dudana egitasmo bati. Zehaztu dituzte epeak, zehaztu dute aurrekontua, baina ez dute inolako zehaztasunik eman kultur proiektuaz».

«Coca-Cola Urdaibai»

Arregiren esanetan, «Aldundiak ez du argitu museoaz izango den, artea ekoizteko zentroa, natura interpretatzeko zentroa edota AEBetako fundazioko bildumak erakusteko baimena izango duen». Eta azken hori «ezer baino garrantzitsuagoa» da Arregirentzat. «Izan ere, Guggenheimen bildumak erakusterik izango ez badu, zergatik izan behar du Guggenheim? Nolanahi utziko diogu AEBetako fundazioari gure museo baten inguruko erabakiak hartzen?». Dioenez, «helburua nazioartean sona lortzea bada



Xabier Laka, Joseba Arregi, Fernando Golvano eta Maria Mur, atzo, Bilbon. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

beste marka batzuk ere erabil ditzaizkete: Coca-Cola Urdaibai edota NASA-Urdaibai. Zergatik ez?».

Arregik garbi dauka: «Urdaibaiko Guggenheim egiteko iragarpena mirariaren magiak liluraturik» egin zuen Bilbaok, «baina mirariak ez dira sarri askotan gertatzen, eta sinplekeria da pentsatzea behin ondo aterata dena beste behin ere ondo aterako dela». Arregiren esanetan, «Bilboko Guggenheim horren arrakastatsua da, ezen arrakastaz hiltzen ari da». Hau da, «horren ondo doa, ezen ez digu aukerarik eman balorazio kritiko bat egiteko, ahulguneak ikusteko, izan badiutelako».

Arregiren iritziz, fundazioaren bildumaren zati handi bat oraindik Bilbon erakutsi ez izana da gabeziatiko bat. Bazkide estatubatuarrek bere garaian izenpetutako ituna osotasunean ez dela bete zuten ari uste du Arregik. Hortaz, baldintza horietan beste Guggenheim bat egitea ulertezin zaio.

Kontra azaltzeko beste arrazoi bat ere eman zuen atzo Bilbon: «Ez, gisa honetako gaiak kudeatzeko eta erabakitzeko Aldundiak erabilitako moduari». Urdaibaiko Guggenheimi buruzko informazioa ez eman izanak agintariak gizararte hedatzen ari diren «pedagogia arriskutsu» bati erantzuten diola uste du bere garaian herritarren gehiengoaren iritzia aurreratu

ka Bilboko Guggenheim egin zue-nak.

Hitza hartzean, Xabier Lakak ekarri zizkion akordura iragandako garai horiek, orduko agintariek ere «eztabaida bahitu» zutela esanaz. «Beharbada premia egoeran geunden, baina eztabaidarako eskubidea lapurtuz, salbues-



Behin ondo aterata dena beste behin ere ondo aterako dela pentsatzea sinplekeria da»

JOSEBA ARREGI

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izandakoa

«Bilbon ere eztabaida bahitu ziguten; premia egoeratik salbuespen egoerara pasatu ginen»

XABIER LAKA

EHUko irakaslea eta artista

«Nondik datorkie proiektu kulturalik gabeko museo arranditsuak egiteko tema?»

MARIA MUR

Arte ekoizle independentea

pen egoera ezarri zuten», hitz egin zuen argi eta garbi Lakak.

Ez du Urdaibain Guggenheim bat egitearen aldekoa. Are, «jaso-ta informazio urria» ere ez du batera gustuko. «Kontrajarriak begitantzen zaizkio hainbat ter-

mino. «Bilbokoaren antzik izango ez duela diote, baina osagarriak izango direla».

«Parke tematikoa nahi dute»

Aldundiaren hamabi bideragarrtasun azterketak leitu ondoren «herritarrek soilik ikusle pasibogisa» kontuan hartzen dituen museo ereduaz ari direla uste du Lakak. «Biodibertsitatea diote, baina biodibertimendua dute buruan. Biosfera erreserba diotenean, halaber, parke tematikoa ari dira pentsatzen».

Alde horretatik, «fatalismo demokratikoan» murgildurik gaudela uste du Lakak. «Ez dago iritzia emateko edota eztabaidatzeko inolako aukerarik. Irizpide oso zehaztuta oinarritzen den eredu bat aurkezten dute, jada ongi diseinatua eta egituratua, eta herritarrek ametitza besterik ez dutela dirudi, ez dute kritikarik onartzen».

Nolanahi den, Bidebarrieta kulturguneko auditoriuma lepo bete zen atzo, eta antolatzaileen iritziz, «horrek erakusten du Aldundiak mahai gainean jarritako egitasmoak gaitzesleak ere badi-tuela. Edo jendeak eztabaida gosea duela, behinik behin».

Maria Murrek osagai berriak gehitu zituen eztabaidara. «Gauza batek ematen dit atentzioa», esan zuen, «azken urteetan arte garaikidea bultzatzeko sortu den

hainbesteko interesa, are gehiago, arte garaikidea interesatzen ez zaien horien aldetik». Alegia, azken urteetan arte ekipamendu, museo eta zentroak ugaritu izana «bitxia» iruditzen zaio Murri. «Are bitxiagoa martxa egokia zuten zentroak goitik behera desegin dituztela ikusita, Arteleku eta Rekalde, esate baterako». Zalantzak sortzen zaizkio Murri: «Nondik datorkie proiektu kulturalik ez duten proiektu arranditsuak egiteko tema?». Euskal Herrian «tankera horretako espazio gehiegi» daudela uste du Murrek, «zergatik jarraitzen diote bide horri?», egin zuen galdera.

Guggenheim efektuari, berriaz, «ameskeria» iritzi dio Murrek. «Bisitari kopurua eta hirigintza berritzeko izandako eragina kenduta, zer du Guggenheimek? Eredua autista da. Zer harreman du Bilboko kultur mugimenduari edo zer lotura du Euskal Herriko beste herrialdeetako zentroekin?».

Urdaibaiko Guggenheimi ez dio itxura onik hartzen Murrek. Bilboko Guggenheimen ereduaz ez du gustuko, eta are gutxiago gus-tatzen zaio Urdaibaikoaz entzun duen «apurra». «Bilboko Guggenheim Puppy txakurraren etxola dela esaten da; bada, Puppyren Urdaibaiko udako etxea izango da».

iberro@berria.info